



Erabakia, 2022ko abenduaren 21ekoa, UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearena, zeinaren bidez akats material bat zuzentzen den AZPkoek 2022/2023ko bigarren lauhilekoan euskara ikasteko aurkeztutako eskarien behin betiko zerrendetan.

Gertakariak

2022ko urriaren 27an Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak argitaratu zuen 2022/2023 ikasturteko bigarren lauhilekoan (otsailetik ekainera) euskara ikastaroak eskatzeko deialdia, eta abenduaren 1eko Erabakiaren bidez onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratu zituen.

Akats material bat antzeman dugu erabakiari atxikitako behin betiko zerrendetan (bost orduko liberazioetan), pertsona bat agertzen delako liberazioa ez dagokiona, badaukalako bere lanposturako eskatzen den hizkuntz eskakizuna.

Zuzenbideko oinarriak

Lehena.- Honela dio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak) 109.2 artikuluan: «Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Bigarrena.- Deialdian argi eta garbi esaten zen bertan parte hartzeko baldintzetako bat zela norberak ez edukitzea bere lanposturako eskatzen den hizkuntz eskakizunaren akreditazioa edo horren pareko titulu baliozkotua. Ikusi dugu liberazioa eskatu duen pertsona horrek badaukala bere lanposturako eskatzen den hizkuntz eskakizuna, eta, beraz, zerrendako akats materiala zuzendu behar dugu.

Resolución de 21 de diciembre de 2022 de la vicerrectora de Euskara, Cultura e Internacionalización de la UPV/EHU, por la que se procede a rectificar el error material advertido en las listas definitivas de solicitudes del personal del PAS para estudiar euskera en el segundo cuatrimestre del curso 2022/2023.

Antecedentes

El 27 de octubre de 2022 la vicerrectora de Euskara, Cultura e Internacionalización publicó la convocatoria para tomar parte en los cursos del segundo cuatrimestre (febrero-junio) del curso 2022/2023, y mediante resolución del 1 de diciembre publicó las listas definitivas de solicitudes del PAS admitidas y desestimadas.

Revisado dicho acuerdo se ha advertido un error material en las listas definitivas (Liberaciones de cinco horas) al incluir en la misma a una persona que de acuerdo a la convocatoria no le correspondía la liberación por haber obtenido ya el perfil exigido para su puesto de trabajo.

Fundamentos jurídicos

Primero.- Conforme al artículo 109.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, *“Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos.”*

Segundo.- La convocatoria preveía expresamente entre los requisitos para la participación en la misma no poseer la acreditación correspondiente al perfil lingüístico de su puesto o título convalidado. Advertido que la persona solicitante de la liberación ya posee el perfil exigido en su puesto de trabajo se procede a la rectificación del error material cometido.





Erabaki dut:

Lehenengoa: Egindako akats materiala zuzentzea eta bost orduko liberazioen behin betiko zerrenda eguneratuak argitaratzea.

Bigarrena: Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakiok Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean administrazio auzietarako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean.

Leioan, 2022ko abenduaren 21ean

Dispongo:

Primero: Rectificar el error material cometido y publicar las listas definitivas corregidas de las liberaciones de 5 horas.

Segundo: Contra la presente resolución podrá interponerse potestativamente recurso de reposición ante el Vicerrectorado de Euskera, Cultura e Internacionalización en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el correspondiente Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses.

Leioa, a 21 de diciembre de 2022

34086833M MARIA
JUNCAL GUTIERREZ
(R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por
34086833M MARIA JUNCAL
GUTIERREZ (R: Q4818001B)
Fecha: 2022.12.21 10:39:52
+01'00'



M. Juncal Gutierrez Mangado

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea
Vicerrectora de Euskera, Cultura e Internacionalización